

ZORIONAK, GURASO IZAN ZARIE ETA!

Ume txikia ekarri dozue mundura eta jaio dan unetik beretik behar dituan maitasuna eta babesa emongo deutzazue, eta horreekaz batera, hizkuntza be bai, zuen hizkuntza, umearen sentimenduen hizkuntza, zuekaz, familiako beste kideakaz komunikatzeko hizkuntza. Umeari euskeraz egin eta zuen artean be egin ezkerro, gure hizkuntzagaz betiko lotura sendoa eukiko dau.

Umea hasi ahala, etxeko txokotik urten eta eskolara joango da, kirola dala, musika dala, aisialdi taldea dala, beste ume eta nagusi batzuk inguruan eukiko ditu eta hor be, komunikazinarako bere hizkuntza erabiliko dau. Zenbat eta leku gehiagotan euskeraz berba egiteko aukerea euki, hainbat eta hobeto erabiliko dau edozein egoeratan eta gaitasun handiagoa eukiko dau euskeraz biziteko. Eta, etorkizunean bere hizkuntzaren jabe izateaz ganera, beste hizkuntza batzuk ikasteko oinarri sendoa ipinten egongo zarie.

Udalak bat egin gura dau zuekaz une pozgarri honetan eta horren erakusgarri, zorion agur honegaz batera, bertsolari gazteek zuen umeari bereziki egindako bertso-papera bidaltzen deutzuegu, baita umeentzako kankak batzen dituan CDa eta autoan ipinteko pegatina be. Eta aurten jaiotako umeen bertso guztiak liburuxka baten batu eta zuen esku ipiniko dogu datorren urteko azaroaren 29an Bermeoko Kafe Antzokian urtero antolatzen dogun ekitaldian. Horretarako, datorren urteko uda bueltan, gutun baten bidez, zuen umearen argazki bat Euskera Sailera bidaltzeko eskatuko jatzue, bertsoagaz batera argitaratu daigun.

Euskeraz jakin ala ez, gauza asko egin ahal dozue zuen umeak euskerea erabili daian: euskerea ikasi, Gurasolagunen parte hartu, musika eta ipuinak euskeraz emon, euskal produktuak kontsumitu eta zelan ez, euskerearekiko jarrera positiboa eta maitasuna. Horretan lagun izango dozu Udala.

Informazio gehiago: www.bermeo-euskaraz.com/zuretzat/gurasoak

Amaitzeko, barrero be zoriona opa deutzuet. Hartu eizue nire agurrik beroena.

Bermeon, 2014ko azaroaren 14an

Idurre Bideguren Gabantxo
ALKATEA

Bertsoetako doinuak entzun gura izan ezkerro, jo webgune honetara: bdb.bertsozale.com/web/doinutegia/bilaketa
Hemen, bertso doinutegian sartu eta gura dan doinua bilatu.

